

oinak buruan

Eskolartekoa

SAIO DIDAKTIKOAK

(bertso hautatuak)

&

BERTSOPAPERAK

-2016-

Antolatzailea: Euskal Herriko Ikastolen Elkartea



Laguntzailea: Bertsozale Elkartea



Babesleak:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Bildumaren egilea: Gorka Azkarate

Mila esker dokumentu hau osatzeko ahaleaginean euren hondar aletxoak jarri duzuen lagun guztiei: bertso eskoletako irakasle, gajartzaile, antolaketako laguntzaile, ikastetxeetako arduradun...

AURKIBIDEA

1-Hitzaurrea

2-Saio didaktikoetako bertso hautatuak

Legazpi (2016-2-12)

Hernani (2016-2-19)

Zarautz (2016-2-26)

Ataun (2016-3-4)

Elgoibar (2015-3-11)

Azkoitia (2015-3-17)

3-Bertsopaper sarituen bilduma

1-HITZAURREA

Urtea hasi baino ez dela egin irudipena izan arren, dagoeneko beste kandela bat erantsi beharrean gara Eskolartekoaren tarta gozoari. Zenbatgarren kandela den, iazko edo lehenagoko artxiboei bistadizoa bota ezean, kontua ere galduta izango dugu gehienok ziurrenik. Orriotan doakizue gaztetxoan mailan Gipuzkoan gertatu denaren lagin bat.

Aldaketa txikiren bat gorabehera, azken urteotako ohitura eta plazei jarraipena eman zaie. Lehenbizi idatziz, ondoren taula gainean. Karpeta beltzak dantzatzeko momentua. Urtean zehar, edo kasu batzutan azken astean ikasgelatan landutakoa plazaratzeko momentua. Berdintsu da lehen aldia edo hamargarrena izan, bat-batean edo prestatutakoa kantatzen ari, oholtza gainean ari denari nekez alde egingo dio jende aurrean jarduteak berez dakarren urduritasun puntuak, sabeleko kili-kiliak. Hala behar ere.

Geroz eta emanaldi mota ezberdinagoak, landuagoak eta ausartagoak ikusteko aukera izan dugu gainera. Saioari amaiera emateko etorri dira puntako bertsolariak, herri edo bailarako gazteei ere eman zaie aukera, ikasle eta irakasleak nahas-mahasean, aita-emeak batera ere ikusi ditugu... Oparotasuna. Eta andereño, bertso-eskolako arduradun eta lagunak artean sortzen den magia.

Ez nuke testutxo hau, astez aste pazientzia osoz bertsolaritza irakasten zein borondate onenarekin emanaldi hauek antolatu dituztenei eskerrik beroenak eman gabe amaitu nahi, euren laguntzarik gabe eskolartekoak ez luke zentzurik ere izango eta.

Besterik gabe, bildumatxo hau gerta dadila aurten landutakoaren erakusgarri era gozagarri!

Aitor Urbietta // 2016ko ekaina

2-SAIO DIDAKTIKOETAKO BERTSO HAUTATUAK.



LEGAZPI

Bertsopaper ariketa, Haztegi ikastolan eta Zumarragako Zelai-Arizti kultur etxean:

Oñati, Arrasate, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako ikasleak ikasleak



Saio didaktikoa, Latxartegi Aretoan:

*Legazpiko bertso eskolako gaztetxoak: Mikele Arizkorreta, Jone Narbaiza, Ane Beloki, Lierni Ugarte, Izaro Badiola, Oihane Gurrutxaga eta Joxe Arizkorreta

*Agin Laburu eta Nerea Elustondo

Aurkezleak: Mikele Arizkorreta eta Jone Narbaiza



Nerea Elustondo kantuan, Agin Labururen begiradapean



Agin Laburu, errimekin jolasean

SARRERAKO SAIOA

Agin Laburu eta Nerea Elustondo

Doinua: Emazte baten bihotz xamurra

AGIN

Arratsaldeon esanda hasi
beharko genuke noski
gaurkoa degu eskolarteko
lehendabizkiko argazki
Astigarratik goiz atera naiz
eta ez nembilen gaizki
bana nik uste baino urrutigo
jarri dezute Legazpi.

Ba hori ez da Nerea izan
erabakirik juxtuna
Legazpiraino sartu naiz nola
beiratuz ezer-eskuma
herri sarrera batian nengon
dagon sarrerik estuna
ikusi eta lehenbizikua
eskapareteik ez duna.

NEREA

Kantatu dezu zu zenbiltzala
oso garaiz aterata
hala ta guztiz gure herrira
iritxi zera kostata
aitorpentxo bat egingo dizut
txorakeriak lagata
lekuz propio aldatu degu
etortzekoa zinela ta.

Ze irudikeri pintatu duen
gure alboko lagunak
eskaparate kontuak hemen
ez dira kontu ilunak
ugari eta arruntak dira
joanak, etorkizunak,
liluratuta utzi al zaitu
sarreran edertasunak.

Liluratuta utzi nauela
jakin beharko zenuke
herri sarrera hori askotan
pasatu bai dezu zuke
Legazpik badu fabrika kontu
hoeitan zenbait entzute
zuek herriak baino azkoze
kolore gehio dezute.

Legazpik beti hain herri grisa
izan burdindegia
baino guk degu kolore gehio
hor esan dezu egia
zure patrika hobetze aldera
jakin zazu alegia
hemen zabaldu behar zenuke
zure sagardotegia.

Horrela egin behar al det nik
ez dizut ezetz esango
baino kolore kontu hoiekin
egin behar degu promes
gazteengatik ari nintzen ni
euren koloreen babes
ez det ulertzen zu zer dala ta
janzten zeran beti beltzez.

Egia da bai janzkeraz nabil
erdi monja, erdi apaiz
nahiz kolorintsu janztearena
gomendatu didaten maiz
iada aldatzen hasi naizela
esango det modu alaiz
kolore piskat sartu det eta
ortzadar bat sentitzen naiz.

Ortzadarrari gehixeagotan
beiratu behar zeniokeen
nahiz ta gaur degun saio ederrai
kolorea guk biok ken
nere buruai igual ez nago
beiratu behar niokeen
ea gai batzuk saioai ere
kolorea ematen dioten.

Koloreetan laburbiltzen du
bakoitzak bere natura
ta esan digute hiru bertsoan
azal zaitezte kantura
luzatu gera ta beraz, Agin,
goazen gure lekura
edo berandu helduko dira
hauek entrenamendura.

Legazpiko bertso eskolako neska taldearen saioa

Doinua: Intsumisoarena

Nire alboan daukat
Lierni Ugarte
bertsoak alaitzeko
berak dauka arte
antzekoak garela
esan ohi digute
biok azkarrak gara
arrazoi daukate.

Bertso paper munduan
denbora luzaro
ederki idazten du
oso argi dago
burutapen mordoa
errimak gehiago
artista hutsa degu
ondoko Izaro.

Seietan txikiena
Jone du izena
zaletasun bezala
bertsoa duena
ondo erakusten du
daukan ahalmena
nahiz ta txikina izan
bera da onena.

Sei saltsera hauei gaur
bota begirada
astean behin gustora
elkartu ohi gara
bertso ugari botaz
barre ta algara
animatu ta zatoz
bertso eskolara.

Ane Beloki degu
makina azkarra
gutatik bat-batean
eiten dun bakarra
gustoko bertsoa ta
gustokoa farra
aurpegian darama
beti irrifarra.

Mikelek barnean du
beti umorea
zoriontasuna du
bizitzan legea
irabazi ez arren
da irabazlea
bertsolari bikaina
pertsonea hobea.

Neska bikaina degu
ipuinak idazten
idazle izango da
etorkizun baten
Oihane Gurrutxagak
zenbat arte duen
trikiakin batera
bertsoak kantatzen.

NEREA

Lady Gaga, baloia da,
lautada, begirada, danborrada

Doinua: Bizkaiko txerriarena

Legazpi haran bat da
ta ez da lautada
jaietan ospatzen da
beti danborrada
Ilintxan arma onen
noski balioa da
nahiz ta famatuago
izan Laydy Gaga
sensualagoa da
nere begirada.

Dagin

sorgina, makina, bibolina,
atsegina, ahalegina

Doinua: Neskazahar bat tentatzen

Ezautzen al dezue
ondoko sorgina
bertsotarako bera
omen da makina
jotzen dit sarri arpa
eta bibolina
baina ez da batera
neska atsegina
nahiz ta egiten duen
bere ahalegina.



Nerea Elustondo, etxean zirtolari

PERTSONAIA EZKUTUA: Nerea asmatzen saiatu, Aginek pistak eman.

Doinua: Ikusi nuenean

Nerea: Zer da hori objetua edo ta pertsona?

Agin: Pertsona objektu bat bezela dagona

N: Orduan hori al dago aspaldian hila:

A: ez, ez, bastante bizi daukagu mutila

N: mutila degu beraz, al da euskalduna:

A: bueno, gutxienez euskeraz pixkat eiten duna

N: futboleko jokatzen ote da abila:

A: nik esango nuke hortan ere badakila

N: aktore izatea posible ote da:

A: aktore mundu hortan beti da norbera

N: Legazpiarra al den jakin nahiko nuke:

A: ez dakit nongoa den, baina ez det uste

N: ta zer gustatzen zaio denbora librean:

A: ibiltzea telebistako famaren bidean

N: ile luzea dauka edo eta motza:

A: segun zer urte garaitan izan du bakoitza

N: zer da ni baino gazte edo zaharragoa:

A: gazte izatea da errazagoa

N: flekilloa al dauka kopeta gainean:

A: baita ile rubioa darama soinean

N: ta gaztetxoentzako ote degu eder:

A: behintzat aztoratzen du makina bat bazter

N: Justin Bieber ote degu pertsonaia hori:

A: euskal mundura ekarri eta nahiko ongi

N: orduan izango da nahiko famatua:

A: nik ez ezagutzea hoi da pekatua

N: txoropito xamarra ote da tipoa:

A: ez dakit nolakoa degun mutikoa

N: aho handia al du gainera zabala:

A: uste det ETBn ia edonork daukala

N: Txurru ote degu ba pertsonaia hori:

A: ba, bai, asmatu dezu zorionak tori!

Legazpiko taldea: Joxe Arizkorreta, Mikele Arizkorreta , Jone Narbaiza, Ane Beloki, Lierni Ugarte, Izaro Badiola, Oihane Gurrutxaga

Doinua: Askok irudipena du

Gu bertsoari begira
mila nerbio pasata
gu bertsoari begira
txapelketetan dardarka
ez buru eta ez hanka
baina eginez distira (bis)

Guk bertsoari begira
ikusten degu jolasa
guk bertsoari begira
alaitasun anabasa
gustora denbora pasa
beste_helburu bat hori da (bis)

Gu bertsoari begira
unibertsoa alaituz
gu bertsoari begira
zerbait ezberdina sortuz
seirok bizi gara kantuz
hainbat errimen harira (bis)

Guk bertsoari begira
makina bat ikuspegi
gu bertsoari begira
mugitzen gera gehiegi
horrela nahi degu segi
urte batzutan sikira (bis)

Guk bertsoari begira
filosofeatzen dugu
guk bertsoari begira
irudimena helburu
buruan hamaika mundu
ideiak jira ta bira (bis)

Gu bertsoari begira
habanera nahiz koplatan
gu bertsoari begira
aritzen gera juergatan
nahiz sarri errimak faltan
ai denak onak balira (bis)

Guk bertsoari begira
zenbait txispa ta grazia
guk bertsoari begira
puntu gozo ta gazia
ereiten degu hazia
errimeira tira ta tira (bis)

IKUSPEGIAK

AMAIERAKO AGURRAK

Agin Laburu eta Nerea Elustondo

Doinua: Sorlekua utziz gero

@AGIN

Legazpira etorrita
jarri nahi nuen niretik
jarri ez dedan partea
hala ere barka betik
ea gustora egon zeraten
gozatuz hortik behetik
eskerrak eman eta banao
etorritako bidetik.

@NEREA


Agin, ongi etorria
zu beti zera Legazpin
ta noski gaurkoan ere
ez dizugu egin ixkin
hona etorri zarete nahiz ta
kanpoan egin zipriztin
eskerrik asko eta ahal dala
disfrutatu Muruazpin.



Legazpiko neskak, kantuan



Talde argazkia, amaieran



Joxe Arizkorreta, gitarrajolea

HERNANI

Bertsopaper ariketa, Hernaniko Biteri kultur etxean:

Oiartzun, Añorga, Lasarte, Hernani, Villabona eta Tolosako ikasleak



Saio didaktikoa, Hernaniko Biteri kultur etxean:

* Añorga, Lasarte, Hernani, Oiartzun eta Tolosako taldeak

* Agin Laburu eta Oihana Iguaran

Aurkezlea: Ane Labaka

HASERAKO AGURRA: Añorgako taldea (Beñat Lizartza, Malen Lopetegui, Udane Azkarate, Inge Peinador, Goreti Manterola, Nahikari Estevez, Xuban Olaizola, Urko Aramendi, Joseba Latorre)

Doinua: Elurra teilatuan

*Tralara, tralaralai
Añorgatik gatoz
arratsalde polit bat
pasatzeko asmoz*

Beñat izena daukat
Lizartza abizena
eta bertso hauetan
ni naiz hoberena.
tralara...

Nik kizena det Inge
ta nago urduri
toki ona neretzat
Kurtsaala dirudi.
tralara...

Nere izena Urko da
bizi naiz Añorgan
gaur jakingo dezue
hoberena nor dan.
tralara...

Goreti izena det
lagunentzat Gore
eta gaur etorri naiz
dotore-dotore.
tralara...

Nere izena degu
Xuban Olaizola
Añorgan bizi naiz ta
earki no hola.
tralara...

Nahikari izena det
eta usurbildarra
neska jatorra baina
kotilla xamarra
tralara...

Lasarten bizi naiz ni
izena Udane
gorputz normala daukat
ezizenez Tama
tralara...

Hamaika urte ditut
ta izena Malen
beti ikastolara
iristen naiz lehen
tralara...

Joseba dut izena
naiz futbolaria
Añorgan ibiltzen naiz
zaintzen porteria

tralara...
*haxe zan guztia
espero degu denok
kontentu uztia.*



Añorgako taldea



Oiartzungo Haurtzaro Ikastolako taldea

HASERAKO AGURRA: Oiartzungo Hautzaro ikastolako taldea (Unax Lantz Brit, Irati Brun Moreno, Maialen Iglesias Labaka, Haitz Aranburu Mutiloa, Oier Zabaleta Ibarra, Anne Barron Guerra, Mattin Etxebeste Esnaola)

Doinua: Egun da Santi Mamiña (soinuaren laguntzarekin)

Oier, Haitz, Maialen, Mattin
Irati, Ane ta Unaxekin
urrutiraino heldu daiteke
horrelako taldeekin

Gu Oiartzuarrak gera
bertsozaleak gainera
jokoan dagon guztia gatoz
eraman asmoz etxera

Denak Hernani aldera
gustora etorri gera
Oiartzuarren habilidade
guztiak erakustera

Mahai batean lehena
oholtza gainean hurrena
klasea galtzen ari gera ta
jo, a ze nolako pena

Kantuan onak ga klaro
ta idatziz are gehiago
bertso idatzien txapelduna gu
zazpien artean dago

Ahotsa ondo zainduta
kantuz nahidugu disfruta
Biteriraino etorrigera
ederki entrenatuta

Oiartzunen bada kasta
segida ere badauka
esan daiteke Oiartzun dela
bertsolarien sehaska

Egin dugu lan itzela
zin ziteken bestela
trikitilari on bat ta guzti
a ze nolako nibela

Nahizta bagoazen jada
jakin ezazue hara
gonbidatuta zaudete denak
gure bertso eskolara

HASERAKO AGURRA: Lasarteko bertso eskolako taldea (Andrea Bravo, Dune Iriarte, Haizea Arbizu, Uxue Odriozola, Lide Hidalgo, Olatz Castro, Nahia Calle, Nahia Fabian eta Julene Iraola)

Doinua: Askok irudipen du

Gure irudimen, gure
bihurrikeri ta ahots
Hernaniarrak potzera
Lasarte-Oriatik gatoz.

Hementxe gaude Uxue,
Dune, Nahia eta Andrea
Julene, Nahia, Lide olatz
eta, azkenik Haizea.

Beatzi neska dotore
Hernanira kantatzera
zuen aurrean abestu
eta ondo pasatzera.

Bertsotako jarioa
izaten delako lege
gu ez gara inoiz isiltzen
unaren azpian ere.

Lehen txintxoak ginen bainan
aldatu egin gara aurtan
Anek erakutsi digu
guri sorginak izaten.

Bi rubia oso sexy
kantura gatoz horrela
esan digute bertsotan
gehiago ligatzen dela.

Bertsolari izateko
bidean gu denok gaude
ez genuke geratu nahi
saiakera egin gabe.

Bertso-eskolako maisuak
erotu daitezen hara:
Segi gaiztoak izaten,
laister elkartuko gara!



Lasarteko bertso eskolako taldea



Tolosako taldea

HASERAKO AGURRA: Tolosako taldea (Jon Mendiluze, Xabier Nuñez, Mikel Ezkerro, Peio Zubeldia, Itxaso Andueza, Manex Olasagasti, Asier Arteaga)

Doinua: Amak ezkondu ninduen

Aupa zer gabilta?
denoi atxaldeon.
Nahiz Tolosarrak geran
gaur egin jaramon
ez degu babarrunikan jan
eta lasai egon.

Unaik ekarri gintuen
hamaika urtekin
(ta ni hamarrekkin)
bertso eskolan nola
gogor dugun ekin
berriro gatoz aurten denok
lotsa gutxirekin.

Gaurko saioak guretzat
gauz on bat badauka
Ostiral atxaldean
zer nolako mauka
eskolan mate ta inglesa
galdu ditugu ta.

Trenez etorri geranez
gu duela gutxi
Unai, zeinen xurra dan
begira ikusi
treneko txartelak erosten
ere ez digu utzi.

Sartu geran bezain pronto
han pika begira
iritsti nahi genunez
garaiz Hernanira
korrika ibiliak gera
bagoitik bagoira.

Nola erakusten digun
gutxi eta gaizki
gaurko abentura hau
dihoa garesti
etxera itzuliko gera
multa eta guzti.

Horta etorri gara ta
has bedi jolasa
ea zer moduz doan
lehenengo plaza
ta zuek txalo jo gogotik
eta ondo pasa!

HASERAKO AGURRA: Hernaniko taldea (Ane Kerejeta, Nora Urbe, Añes Kasado, Ainitze Oiarbide, Laia Garmendia, Joana Tolaretxipi, Intza Pagola, Zigor Leiaristi, Oihan Tomasena)

Doinua: Ai Zapotxin!

*Hau ohorea,
nolako taldea,
gu Maialenen
hurrengoak gea.*

Zigorrekin harritu
egingo zerate
nahi duenari buruz
kantatu dezake

Laia degu taldeko
gure azeria
errez ta prezisioz
sartzen du ziria

hau ohorea...

Añes lau oinekin
ibiltzen da tope
beatziko txikian
uzten badiote

Ainitze bertsolari
onentsuen gisan
piztia da nahiz santu
aurpegia izan

hau ohorea...

Puntu erantzunetan
Oihan ze abila
alperrik zabiltzate
hobe baten bila

Joana doinutegi
zabala medio
Unai Agirrek ere
inbidia dio

hau ohorea...

Ane eukitzea da
bentaja doblea
pala oso ona da
bertsotan hobea

Hemengo honek berriz
izena du Ihintza
hankaz gora jarriko
du bertsolaritza

Nora errimarekin.
ibiltzen da trebe
errima dezakezu
hitzarekin ere

hau ohorea...

*Guk esana
egia da dana
espero degu
gustatu izana.*



Hernaniko taldea



Hernaniko bigarren taldea

HASERAKO AGURRA: Hernaniko bigarren taldea (Janitz Nazabal, Ekain Tolaretxipi, Iker Elizasu, Aitor Arregi, June Garmendia, Garazi Urdangarin)

Doinua: Aita semeak tabernan daude

Janitz Nazabal saxofoilari
eta mutiko jatorra
Garagarza baserrikoa da
oso mutiko gogorra

Gure Ekain da Realzalea
dionez donostiarra
lagunentzako donostiarra,
baino da hernaniarra

Ikerrek hamaika urte ditu
motoarekin azkarra
bera da erdi Aranokoa
ta erdi hernaniarra

Aitor da oso mutil lasaia
ta bertsotan basapizti
Basarri eta Lasarterenak
guztiak buruz dakizki

June bertsotan eta dantzan da
oso neska potentea
baina gehiegi gustatzen zaio
antzerkia egitea

Neri buruzko bertsoa ein dunak
izena dauka Garazi
bada ni baino hobea baina
bertsotan ez du ikasi

Garazi, June, Aitor ta Janitz,
Iker ta Ekain batera
sillan lo hartu ez dezazuen
gogor saiatuko gera.

Agin Laburu eta Oihana Iguaran

OFIZIOA: eskolarteko zuen oroitzenak kontatu itzazue

Doinua: Adiskidia Andoaindikan

AGIN LABURU

Gaur bertsotara inguratuak gera zientoren bat lagun eta galdera egin digute zer izan beharko genun ez irakasle, ez abokatu eta Euzkitze urrun... baina txikitan aizu, Oihana bertsolari izan nahi nun.

Nik ze edade edukiko non ez non osatzen hamarrik baina klasian falta ez zenez ez hitzik ta ez marmarrik bertsotan beti hasi ohi ginen baina urduri xamarrik eta mikroa jartzen genuen baina horixe bakarrik.

OIHANA IGUARAN

Ta amets hori betea dezu ia egia aitortzeko hauei begira nik sentitu det zerbait inbiri antzeko nire makurka edo luzeka kapaz nintzen aritzeko ta ez nintzen gai mikrofonoa bere lekuan jartzeko.

Ba, nik oroitzen zaitut zu, Agin oholtza gain hortan apain urduri igual, kantuan trakets eta behin edo behin bikain, hamar minutu pasa izan det bertso bat noiz hasiko zain lehen ezinean aritzen zinen eta begiratu orain.

Nire ustetan askoz hobeto ez orain eta ez antzinan gaur e guztiak ez gabiltzanez berdin hemen ta berdin han ahotsak gora altxiaz beti oholtza baten eskinan duda egiten nun: bertsolariak edo joteroak ginan.

Bularra eta ahotsa altxa fuerte kantatu ta punto bertso eskolan ikasi genun horretan hainbeste truku jota bat edo bertsoa zer den ez ginen konturatuko ta onena da gerora ere ez gerala isilduko.

Isiltasuna bestela ere mundu hontan bada sobra bertsolariak kantatzea du printzipio derrigorra mutilak berriz ahotsan kontra aldaketak eta horra edade hortan aritzen ginen biologiaren kontra.

Biologiak eta ahotsak sortuz mila konpromezu gaillo ta txio egiten zenun eta horregatik kexu geroztik ere desfinatzen oso abila zera zu biologia diozu baina orain hori alde dezu.



Oihana Iguaran

Oihana eta Agin: OINAK EMANDA 8 PUNTUKO BERTSO BANA

Doinua: Habanera

① OIHANA

Bertsolaritzan idolo izan det nik beti Agin hain zorrotz agertu baitu hainbeste hortz eta hagin karpetak jartzen nituen argazkiekin hain darling ta gero oholtzan txaloak jo nahi nizkion nik arin denbora aurrera doa badauka nahikoa adin goraino ailegatzeko nahi diot beti eragin hegan ikasi zun eta urruti iritsi dadin iada alfonbrarik gabe ere hegan dihoa aladin.

② AGIN

Ni loreak botazale ez naiz izaten Oihana baina ez naiz biurtuko hoiek entzun eta flana bertsoei buru hizketan baldin banoa zugana esan beharra daukagu kanbiatu dela dana Illunbeko finalean mila txaloren imana hagin zorrotzik gabea kozk egiten dun kaimana baina bertsoak badauka aro berri hontan dama zu bertsorik gabe zinake jelik ez dun patxarana.



Ane Labaka, gaijartzailea

Agin eta Oihana: publikoaren artean kopla kantari

Doinua: Bertsuak jarri dizkat

AGIN

Pelota egiten duna
bat bada derrigor
baina bila hasi naiz
pentsatu nahi det nor
Olaizolaz jantzita
ba al dago inor (bis)

Baina haraino goazen
orain eskuz esku
estutxeko notak zuk
esan dezu prestu
baina Mendi lagunak
estutxerik ez du (bis)

Elik ez du sekula
hortako indarririk
nahiz eta ez daukanbronka
eta fede txarrik
Elirekin ez dago
pelota beharrik (bis)

Hanka luzearena
baina ez da problema
adibide garbia
degu Junerena
irakasle ta abogada
sartzen dituen (bis)

Arpa jotzen ai ginen
aupa eta aup
gehio zen piropoa
ez zen gure zaunka
horrela egiteak
meritua dauka (bis)

OIHANA

Askok egiten dio
“Mendiri” pelota
tira, hor hiru neska
denak bere kontra
zenbatek utzi dion
estutxean nota (bis)

Eli irakaslea
orain hitzkat hartzen
ikasle guztiekin
aritzen da zuzen
pelota egin nahi die
ta ez dira ausartzen (bis)

Silabak kontatzeko
badaukat sasoia
baina ezin kabitu
nire arrazoia
noiz asmatuko dute
neurri erraldoia (bis)

Juneren eredia
pareanjartzean
abildadea dauka
guztiak sartzean
zortziko txikia zan
hamabi zortzian (bis).

Eta bertso eskolan
daude horrenbeste
bete nahi dituztenak
urdail eta heste
bertso eskola ez baina
merendola eske (bis)

AGIN

Trikiti eta bertso
danaren peskizan
merendola berakin
pentsatzen ai nintzan
ze euskaldunagoa
ez liteke izan (bis)

Merendola kontuak
aibala, aibala
ara, Jon Mendiluze
begitan nahi hala
sagardotegin bada
ziur bera dala (bis)

Beraz, ordun Oihana
zu zaude bentajan
sagardotegi eta
pastel batzuk kajan
eta egiten duna
dena Oihanak jan (bis)

Astoa ikusi nuen
urterikan urte
haueek beti kantatu
izan omen dute
baina astoa zein den
jakin nahiko nuke (bis)

Arrazoi dezu noski
izan leike Agin
abestiak halaxe
aipatzen du arin:
Astoa ikusi nuen
betaurrekoekin (bis).

OIHANA

Trikitilari fina
nik e jo det begiz
merendola aitzakin
dabil behin ta berriz
urteak bete ditu
aurten hiru aldiz (bis)

Noski, ohitura ona
behar da mantendu
sagardotegiana
ez zaiozu kendu
baina beti pastela
Pellok ekartzen du(bis)

Ohitura zaharra edo
postura berrian
bertso eskolan gabiltz
han nere herrian
ta denok berdin gabiltz
doinu ta neurrian (bis)

Asko faltatu leike
doinu xar batekin
asto hori nor ote
nahi dezue jakin
pista bat emango det:
izan leike Agin (bis).

Doinu xixtrin horrekin
daukagu ezina
ondo kantatzeko ere
kapazak bagina
astoak non utzi du
bere gabardina (bis).

AGIN

Gabardina kontuak
utz itzazu aizu
baina zure koplakin
harritu natzaizu
doinuari ziztrina
deitu al diozu(bis)?

Doinu zixtrinarena
nire aitzakia
ikasi bait liteke
ta beste bat ia
irakasleak badu
kulparen zatia (bis)

Beraz, luzatu degu
biok nahiko lata
bukatu beharko da
ordua dala ta
oh baserritxon azken
agurrak botata (bis).

OIHANA

Doinua hala dala
iruitzen zait neri
erabiltzen baitute
askotan gehiegi
horrela bada ere
hor kantatzen segi (bis).

Irakasleak ez du
aukera makala
baina ez badakizki
haxe da normala
hemen ikusi det lehen
aukera zabala (bis)



Agin Laburu

ZARAUZ

Bertsopaper ariketa, Zarauzko Oteitza lizeoan:

Usurbil, Orio, Zarautz, Zumaia eta Getariko ikasleak



Saio didaktikoa, Zarauzko Modelo aretoan:

*Zarauzko Etxebeltz bertso eskolako taldea

* Aner Euzkitze, Xabier Euzkitze eta Aitor Urbietak

Aurkezleak: Peru Gabironido eta Irati Tolosa

HASERAKO AGURRA: Aner Euzkitze, Xabier Euzkitze eta Aitor Urbieta

Aner Euzkitze

Doinua: Gogoratuko zara

Honaino etorri naiz
aita xaharrarekin
neri esker saioak
zitula banekin
ta orain ein behar det
nik doble ahalegin
bere mailan mantendu
dedin berdin-berdin (bis)
beldurtuta berriro
etxera itzul dedin.

Xabier Euzkitze

Doinua: Aita izena

Agur ta erdi, hemen zeraten
zarauztar zein bestelako
gaurko eguna egutegian
azpimarratu beharkio
semearekin lehenengo aldiz
kantatzera noalako
gaurko saioa ez da bertsoen
historiara pasako
baina gogoan geldituko da
Euzkitze xaharrarentzako (bis).

Aitor Urbieta

Doinua: Killin (Mikel Urdangarin)

Hau bihurtu zaigu
egun finkoa
zuek mimo handiz
landurikoa
hemen hirukote
atipikoa
heldua, gaztea
ta mutikoa (bis)
has dadila saio
didaktikoa.



Aner Euzkitze, Xabier Euzkitze eta Aitor Urbieta



Zarauzko bertso eskolakoak, mozerro eta guzti

Aitor Urbieta eta Aner Euzkitze

OFIZIOA: 2 gazte, afalostean kantarai hastera zuazte eta 2 *giri* ikusi dituzue zuei grabatzen ari direla

Doinua: Haizeak bidali du

① ANER EUZKITZE

Lehenengo aldia det bertso afari baten eta ni harrituta geratu naiz aurten biok utz ditzakegu hauek pake paken ulertzen ez dutena grabatu dezaten.

Kamara mobilekin hor dira eseri ta argazki segidan hortxe dute segi zure erantzuna gaizki iruitzen zait neri ni modelo naiz baina zu ez behintzat gehiegi.

① AITOR URBIETA

Gure hitzak beraiei holako zirrara baina horko mugikor ta horko kamara gauza batetaz orain hartu naiz hara bertsolariz aparte modeloak gara.

Hara zer dion nere lagun bezeroak modelo gisa jarri baidizkit zeroak eta guidi hoeiek a ze endredoak grabatu omen dituzte euskal rokerok.



Aner eta Aitor, ofiziotan



Euzkitze aita-semeen estraineko ofizioa jendaurrean

Aitor Urbieta eta Xabier Euzkitze

OFIZIOA: Txapelketako egunean, zuk Olasagasti, egurra eman zenion Aitorri. Gaur etxera heldu eta mezu hau jaso dezu: desafioa nahi diat.

Doinua: Arratsaldeon lehendabizitik

@XABIER EUZKITZE

Hara, mobila hartu det eta
ez al det ulertu gaizki
berriz gazte hau hor nun datorren
erronka harro ta guzti
orain hurrengo umilaldia
ez al zendun izan aski
ni gailentzeko behar nituzke
zure tankerako zazpi (bis)

Lehen ere ez zinen aizu izango
gaizki prestatutakoa
aberi handi bat egin nuen baino
apustuk bere lekua
metro erdiko zikatriz zaharra
daukat ala jaungoikoa
hala ere zuri irabazteko
beso bakarra nahikoa (bis).

@AITOR URBIETA

Beteranoa den arren ondo
dago Joxemari sasoiz
aizkol jokua galdu nuen ta
ez nago umore alaiz
bai, bere kontra galtzeak neri
sortu zidan nahikoa gaitz
zaharra aisa hautsi behar det
ondo preparatzen banaiz (bis)

Pentsatzen nuen istripuakin
gure Joxemari kito
baina itxuraz on haize haiek
oaindik ez zaizkio ito
nik pentsatzen det hamar kanaerdi
eta hiru-lau oinbiko...
apustu eiten det: nik bezain azkar
ez dituzula ebakiko (bis).

Aner Euzkitze eta Xabier Euzkitze

OFIZIOA: Aner, aitak, gaupasa egiteko baimenik ez dio eman nahi bere seme Xabierri.

Doinua: Zeru altuan dagoen jaunak

@ANER EUZKITZE

Nota kontuan izaten ez dezun
zuk nahikoa endredo
ta neregana etorri zera
zero atera ta gero
ateratzeko uzterik behintzat
nigandik ez zazu espero
gustora asko joango zinake
ne(re) notak atera ezkeru.

Utziko dizut neri gutxinez
txukun hitz egin ezkeru
baina honela behintzat ez zazu
ezer handirik espero
utziko dizut gustora asko
bueno, gustora asko edo...
nik hirutikan hirua neukan
ta zuk hamarretik zero.

@XABIER EUZKITZE

Beraz, notena da aitzakia
zeuk orain diozunian
txarran ezer ez dezu lortzen,
saiatu zaitez onian
nere nota txar hoiek hartuta
hor zauzkat aldamenian
zeu hirutikan pasa al zinen
ikaslia zinenian?

Ikusten denez biok ez gera
ezpal beretik jaioak
baina whatsapez neri zirika
dauzkat neska arraioak
metroerdiko altura dauka
nere gelako leihoak
ta aitta, etxean ez ttut pasako
aurtengo sanpelaioak.

Aner, Xabier eta Aitor: puntukako saioa

Doinua: Haizeak bidali du

1-Aitor hasita

Notak gora ta behera
ai zenbat komeri
hamarretikan zero
botia dit neri
behintzat pulamenturik
ez dezu gehiegi
pulamentu ta nota
biak gutxiegi.

2-Xabier hasita

Eskolan oso ona
da gure arraza
gainditzia ere ez
oso-oso erraza
hala ere nota ezin
hirutikan pasa
aiza, eskolan aitta
ez huen eskasa.

3-Aner hasita

Horretan oker xamar
oraintxe zaude zu
nora joaten zinen
konta dezakezu
honi iristen zaio
makina bat mezu
nere notakin askoz
hobiago dezu.

4-Aitor hasita

Ta klasean ipintzen
al dezu arreta?
batere ez, bertsokin
txoratzen da eta
bertsoa eukitzen det
geroko gordeta
eskerrak onak bota
ohi ditun tarteka.

5-Xabier hasita

Neuk ere pasa nuen
eskolartekoa
eta orduan zenun
zeure neurrikoa
lehena omen zenuen
irabaztekoa
hogeita hamabost urte
hala jaungoikoa!

6-Aner hasita

Umoría gutxinez
badegu dezagun
hogeita hamabost urte
daude oso urrun
bertsotan saiatuak
hona hiru lagun
neretzat nahikoa da
bukatu dezagun.

NORA IZAGIRRE: gitarra lagun bertso jarriak abestuz (Uxue Alberdiren bertsoak)

Doinua: Konplize ditut eta

1-

Eskubaloiko kantxan
goleatzaileenak
gimnasia helmuga
iristen azkenak
ezkutuan porroa
erretzen dutenak
konplize ditut eta
maite ditut denak

2-

Hilekoa lehenbizi
jeitsi zitzaienak
ez dituztenak lortzen
amaren baimenak
goizeko seiak arte
juergara irtenak
konplize ditut eta
maite ditut denak

3-

Liburu aurrean lo
gelditzen direnak
edo beti hamarrak
lortzen dituztenak
gezurti, egoskorak,
aurpegi gardenak
konplize ditut-eta
maite ditut denak

4-

Sahararren alabak
argentinarrenak
euskaraz hitz egiten
soilik dakitenak,
errepikatzaileak,
ikasle finenak,
konplize ditut eta
maite ditut denak

5-

Txoniak ta punkiak
pija nabarmenak,
ortera nahiz hippie-ak
mendizaleenak,
komunera binaka
joaten direnak
konplize ditut-eta
maite ditut denak

6-

Asmo gaiztoz adarra
jotzen didatenak
besarkada batekin
agurtzen nautenak,
handiak ta txikiak
ni bezain lerdinak,
konplize ditut-eta
maite ditut denak
egunero Noraren
ondoan daudenak
konplize ditut eta
maite ditut denak.



Nora Izagirre, gitarrarekin kantuan



Irati Tolosa eta Peru Gabirondo, aurkezleak

ATAUN

Bertsopaper ariketa, Ataungo Herri Antzokian:

Ataun, Lazkao, Beasain, Ordizia eta Zaldibiko ikasleak



Saio didaktikoa, Ataungo Herri Antzokian:

*Ataungo Joxemiel Barandiaran eskolako taldea

*Aitor Sarriegi eta Iban Urdangarin

Aurkezlea: Amaia Agirre

HASERAKO AGURRA: Ataungo Joxemiel Barandiaran eskolako taldea (Olatz Irastortza, Hodei Zabaleta, Ainhoa Osoro, Leire Imaz)

Doinua: Goizean goiz jaikirik

Menditik jaitsi gera
Ataungo otsoak
ez oso mantsoak
ea nun ote dauden
mokadu goxoak

Lakaotarrak gutxi
auzoko herrira
ez oso urrutira
gu ez gera egongo
antzarrei begira

Beasaindarrak lasai
arratsaldepara
heldu dira antza
otsoak ez du maite
bareen likatsa

Ordiziarrak, berriz
dute disfrutatzen
baratza xurgatzen
guri azabururik
ez zaigu gustatzen

Zaldibitarren bila
ez gera hasiko
aulkien azpiko
arkakuso kabiak
ez ditut graziko

Begira dezagun ba
Itsasondoraino
euri eta laino,
ijitorik ez dago
asko ziren baino

Nafartarrik ba al da
areto honetan
ez nabil brometan
eskua altxatzen da
horrelakoetan

Gustatzen zaigu sarri
jolas egitea
ta asko jatea
hobe dezue gure
lagun izatea

Ipuinetan azaltzen
gera beldurgarri
ez kaso egin horri
bizi dira amona
eta txanogorri

Artzaiek ere lasai
lo egin dezaten
ari gera esaten:
goserik ez badegu
ez degula jaten

Otsoon agerpena
bukatzen ari da
aski degu, tira,
gosetzen hasi gera,
bagoaz mendira

*trrararalala, trraralalala
trrarilarirala*

gosetzen hasi gera
bagoaz mendira



Ataungo taldea, bertso jarriak kantatzen



Iban Urdangarin eta Aitor Sarriegi

Iban Urdangarin eta Aitor Sarriegi, **PERTSONAIA EZKUTUA**: Aitor asmatzen saiatu, Ibanek pistak eman.

Doinua: Ikusi nuenean

Aitor: Pertsona ala gauza lehenengo galdera:
Iban: Seguru ez nago baina pertsona da bera

A: mutila ala neska erantzun zaidazu:
I: mutilen lagun baina neskatxa da aizu

A: eta bertsolaria ez da ba izango?
I: bide hortatik ondo ez zera joango

A: Beraz, kirolaria izango ote da?
I: kirolaria ere ez degu ba bera

A: Irakaslea edo ez ote da Iban?
I: ez da baina irakasten dabile segidan

A: Eta bera zer degu gazte ala zaharra?
I: gaztea degu eta sorgina earra

A: Gurekin ote dago tabladu honetan
I: ez det uste dagonik gaur gurekin bertan

A: bertso irakalsea al degu laguna?
I: ez didazu kantatu aukera txukuna

A: Beraz, neska gaztea zer gehio, ez dakit
I: peluka ibiltzen dula esan dezaket nik

A: bi lagunen artean ibiltzen ote da
I: ez zabilta hain gaizki gutxigorabehera

A: mototxarekin edo zeikusirik ba al du?
I: hortik ondo zoazela nahi dizut azaldu

A: Ba, Marimotots da pertsonaje hori
I: ez da, ta ez zaiozue zuek esan inori

A: ta beste pistaren bat eman zuk mesedez
I: sudur gorriarekin ibiltzen da berez

A: hori, ba asmatu det pailazoa dala
I: baina ez Marimotots diozun bezala

A: horregatik galdetu det bi lagunena
I: bestea ere da bikin lehen ibiltzen zena

A: badakit, eta Pirritx izango da bera:
I: jo eiozue txalo bat egin du aukera.

Opariak banatzen, Aitor eta Iban, lau ikasleen artean

Doinua: Kontu berri bat suzeditu da

AITOR

Opari batzuk hartu ditugu
ta hona etorri gero
Mari Domingi hartu ondoan
ta hemen nago Olentzero

Ba, nik ez dakit Olatzi orain
arrautza eman eo ukatu
txokolatea jango du baina
kostailua ezin montatu

Ba, ez dezu hor asmatu, Iban
hobe hor kendu di-da
eta aurrekoak zimurtu eta
zegin txanponei begira

Ez da ez txarra, ideia ona da
denarekin geratzea
modu batean lortu behar da
Olentzero mantentzea

Egia da baina har zazu Leire
hain aterki galakoa
zabaldu eta ez da handia
baina zuretzat nahikoa

Ez zazu uste, nik nahiago det
Hau ainhoarentzat utzi
honek jostailu gehiegi dauzka
eta txokolate gutxi

Nik ere hari oparitxo bat
egin nahi nion nolana
hau aterkia izan liteke
baina banderila ere bai

Arrazoi dezu hori biontzako
beraz, zure arabera
neretzako da txokolatea
eta zuretzat papera.

IBAN

Eskuan daukat botilatxoa
ta nago hauei begira
oaindik txanpaina probatutzeko
txikitxuak ez al dira?

Hurrengoari kaxa txiki hau
ta ez da berriketa
hartu ezazu zure hau bezela
goxo-goxoa zaude ta

Denak prest daude txanponak hartu
ta barrukoa jateko
baina, alferrik guretzat dira
tabernara joateko

Aze nolako oparia hau,
gaurkoz ez da berriketa
hartu ezazu arratserako
euria omen dator eta

Lehengo arrautza hartu du baina
besterentzako berandu
antzeman diot Sarriegiri
hori baretzako nahi du

Amaiarentzat pelota eginez
oparitxo bat hor doa
hil hasieran gaude eta hartu
urrezko txanpon mordoa

Azkenekoa gelditu zaigu
politena degu berez
dudatan nago denon aurrean
Ia ireki edo ez

Ez gera hasiko partizioan
oraingo honetan teman
hartu ezazu oso osorik
ta nahi dezunari eman.

Puntukako saioa, Aitor eta Iban

Doinua: Asto baten gainean

AITOR

1 - Iban hasita

Opari eta guzti
saio konpletoa
hola bukatuz dihoa
orain artekoa
majo aldatu zaigu
eskolartekoa
garaiak aldatuz doaz
hor dago gakoa.

3 - Aitor hasita

Lehen jarduten genuen
gerra bat bezela
okerrena askotan
galdu egiten zela
fetxa preparatuta
gzaltzen ginela
eta orain diote
lehia txarra dela.

5 - Aitor hasita

Eta beti ez genuen
pasatzen hain ondo
beti ondo pasatuta
hola ez ginen egongo
estualdi handigorik
ez baitz zen izango
sufritu gabe inora
ez gera jaongo.

7 - Aitor hasita

Uste det denborarekin
moztuko zaiela
beste askori moztu
zitzaigun bezela
ez ginuke izango
pertsanak bestela
ez diogu ba emango
bukaera goibela.

IBAN

2 - Aitor hasita

Jendea aldatu da
garaiak ere bai
ta dena aldatzerik
Aitor ez nuke nahi
gu ba ote ginake
gaur kantatzeko gai...
orduan ere ibiltzen
ginen oso lai.

4 - Iban hasita

Azkenik jolastea da
gauzik politena
orduan eta orain
beti egiten dena
hitzak nahastu eta
askatu barrena
nik oroitzapen gozoz
oroitzen det lehena.

6 - Iban hasita

Dena larrosa ere
ez baita izaten
ta ikasi genuen
halakoren baten
larre motz motzenez
ahal bezela jaten
ez dakit oraingoek
luzea daukaten.

8 - Iban hasita

Agurtzen hasi gaitezen
piskana-piskana
eta bota detzagun
gero agur bana
nahiko txukun bete deu
jarritako lana
agur bana botata
haxe izan da dana.

BUKAERAKO AGURRAK

Iban Urdangarin

Doinua: *Uso zuria errazu*

Tabladutako komeri
ta estropezuen aberi
ez gera ibili eri
nahizta gehienek alde egin duten
ta ez gelditu gehiegi
zaudetenokin gozatu degu
eta horrelaxe segi (bis).

Aitor Sarriegi

Doinua: *Uso zuria errazu*

Joatea eskolartera
zen lehenbiziko aukera
gaur berriz zuen artera,
gauza bat soilik opa dizuet:
Daukazuena atera
parrez oroitu dezazuela
hemendik hogei urtera (bis).



Amaia Agirre, saioko aurkezlea

ELGOIBAR

Bertsopaper ariketa, Elgoibar Ikastolan:

Elgoibar, Eibar, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako ikasleak



Saio didaktikoa, Elgoibar Ikastolako patioan:

*Julio Soto eta Beñat Gaztelumendi

Aurkezlea: Irati Agirreazaldeg



Elgoibarko ikastolako patioa, bertsozalez lepo



Beñat Gaztelumendi eta Julio Soto

HASERAKO AGURRAK: Julio Soto eta Beñat Gaztelumendi

Julio Soto

Doinua: Gu gazte ginelarik

Egunon guztieri
ene, zenbat buru
zuek jarri gai batzuk
seguru- seguru
gu bertso txiki batzuk
botako ditugu
denon artean ongi
pasatuko dugu.

Beñat Gaztelumendi

Doinua: Mundu hau uzten bazun

Nahiz zuek entzutea
nahio nuen askoz
arratsalde on zenbat
kirol ta zenbat poz
bertsoa osatzen da
jolasez ta jokoz
Elgoibar eta zuek
aurrera apropos
gu ere zuengandik
ikastera gatoz.

Julio Soto eta Beñat Gaztelumendi

OFIZIOA: eskolarteko zuen oroitzapenak kontatu itzazue

Doinua: Sorlekua utziz gero

Beñat Gaztelumendi

Hamar urterekin hasi
ginen zeozer ikasten
ni gazteenetan gazteen
bertsopaper bat egin nahi eta
beti azkenetan azken
orduterdia pasatzen nuen
bertso kaxkar bat idazten.

Ni hamaikarekin hasi
nintzen mingaina astintzen
orduak kanporaketa
Zumaian bertan egin zen
taldeka aritu ohi ginen kantuan
egokien ahalegintzen
lehenengo agurra kantatu nahi ta
txuria gelditu nintzen.

Julio Soto

Kontatu behar dizuet
nola izan zen kaso
etxean bertsolaritza
nola ez nuen jasoa
ni izan nintzen berantiarra
ni izan nintzen soso
hamabostekin kantatu nuen
lehendabiziko bertsoa.

Nere lehenengo saioa
ba izandu zen halaxe
ni mutil lotsagabea
ez zena isiltzen aise
baino behin jarri mikrofonoa
eta hanka hura zen luze
belaunek dar-dar eiten zidaten
olatuek bezelaxe.

Ta gero txapelketetan
gu elkarren ingurura
gogoan al dezu lehen
aldiz jardun ginen hura
gorritiar bat gure ondora
azaldu zen tabladura
Juliok hamabost urtekin zeukan
nik orain dedan altura.

Beñat zen txiki txikia
baina nolako ahalmena
atera zen bertso gidez
ezagutzen ez nuena
gerora baina 2 lagun gera
bertsoz bilduz elkarrena
eta hori da bertsolaritzak
eskaintzen duen onena.



Beñat Gaztelumendi eta Julio Soto

Beñat Gaztelumendi eta Julio Soto: Oinekin jolasa, ikasle batek emandako oinarekin abiatuz, bertsolari batek kantatu eta besteak, aldamenetik banaka, oinak esan.

BEÑAT (ametsa)

Doinua: Gu gazte ginelarik

Esplikatuko dizut
daukadan ametsa
nere aurrean dagola
kristoren jendetza
betea dago erdia,
ta betea ertza
ta Juliok jantziko
digu txapel beltza.

BEÑAT (matematika)

Doinua: Mundu hau uzten bazun

Nik beti suspenditu
det matematika
txarra det teoria,
ta txarra logika,
Juliok ikasi zun
behin aritmetika
berdin dio fisika
ta berdin kimika
erakustea hori
da gauza polita.

JULIO (bultza)

Doinua: Triste bizi naiz eta

Behin oholtza gainean
dugulako bultza
bertsoa da jendeak
nahi dun txupatsusa
hona etorri aurretik
nik hartu dut hutsa
ez du ematen baina
burua dut hutsa.

JULIO (kontrola)

Doinua: Hamalau heriotzena

Gogoratzen naiz etxe
denean kontrola
nik lehenago entzun det
nonbait rok an rola
eskola aurrean egon
ohi bait zen patrola
kartzela modukoa
zen gure ikastola
eta ni hara ez naiz
bueltauko inola.

BEÑAT (ahotsa)

Doinua: Habanera

Lehen ederra neukan baina
ia aldatu zait ahotsa
eta ez du axola orain
ateratzen duen hotsa
umetan ez neukan baina
gero etorri zait lotsa
tae z ditut errez egiten
neurri luze edo motza
bertsoak beti izaten
du erritmoaren morrontza
ta ez da erreza zurekin
konpartitzea oholatza
gero ta zailagoa da
jarritako oin bakoitza
espero det biguntzea
Julio Sotoren bihotza.

JULIO (whatsapp)

Doinua: Habanera

Nere mobil zahar honetan
ezin da jarri whatsapp
nik soilik dut erlojua
dabilena tiki-taka
teknologiarik gabe
bizi nai dut ttipi-ttapa
nahiz mundo moderno hontan
egin daitekeen kostata
neretzat berdinak dira
astelehena, larunbata
beti toki bereborean
aurkitzen baitut aldapa
jendeak mobilarekin
zer nolako lata-lata
nik nahio batere gabe
askoz politago da ta.



Irati Agirreazaldegia, saioa aurkeztuz

Julio Soto eta Beñat Gaztelumendi

Elgoibarko hitz bereziak esplikatu nahian bertsoak.

BEÑAT (antxintxiketa)

D: Batetikan korrozka

Garai batean sarri
esaten zidaten
eta zer zen galdetu
nuen egun baten
antxintxika entzun da
zenbait oroitzapen
antxintxika ibiltzen
hala da izaten
urruti ibiltzea
haragia jaten (bis)

JULIO (sasikokotzen)

D: Anai-arrebak hementxe nator

Nik ahalegina egin behar det
Beñatek bezalakua,
eta badakit ez dela izango
horren ahalegin antzua
sasikokotzu, sasikokotzu
nere hiztegian pausua
logikak diost izan behar dula
sasiak daukan putzua.



Entzule gazteak, saioa hasteko zain

Julio Soto eta Beñat Gaztelumendi

OFIZIOA: Oporretara zoazte biok: zu, Beñat, bizikleta hartu eta mendira; zu, Julio, hegazkina hartu eta hondartzako hotelera.

Doinua: Iragan egun batez

Beñat Gaztelumendi

Zure plana entzunda
nolako ikara
hondartza bat nahi dezu
zuretzako hara,
bizikletan joatea
mila tokitara
hegazkina baino askoz
merkeagoa da.

Gozatzeko aukera
badezu oraindik
hotela ta hondartza
ez dira doainik
ilea handik eta
ilea hemendik
kamixeta kentzea
lotsa ematen dit.

Julio Soto

Bai, dirua behar det
txartela hartzeko
gogoa dut hegazkin
barruan sartzeko
neretzako oporrak
aurrekoz atzeko
gozatzeko baitira
ta ez sufritzeko.

Kamixeta kentzeko
omen zaude izu
Beñat beti egiten
didazu berdintsu
baina al dela zuri
baizabiltz beti zu
kolore piska batek
on egingo dizu.

Hegazkin beldurrekin
lurrean hobeto
bizikleta banakin
ordea konpleto
zurekin joango naiz
aurpegi merkeko
zu jar zaitez aurrean
haizea kentzeko.

Holakoak geranez
gu beti batean
adostu behar degu
zerbait bat-batean
aurten hondartzaraino
olatu merke han
ta txirrinduarena
hurrengo urtean.



Bertsozalea. Elaoibarren

BUKAERAKO AGURRAK

Beñat Gaztelumendi

Doinua: Mundu hau uzten bazun

Hemen hamaika bertso
ta hamaika istori
kontatu dizkiogu
gaur jende askori
gaur idatzi behar da
tokatzen da hori
berdin da gaizki egin,
edo egin ongi
paperaren aurrean
suerte on denori.

Julio Soto

Doinua: Iparragirre abila dela

Eskerrikasko guztiagatik
atera baita politen
geroni ere zuek bezela
aritu ginen noizbaiten
behin bertsoak idazten
gero kantatzen hasten
nahiz askotan gaizki irten
zuei animo eta jarraitu
hitzekin jolas egiten (bis)



Beñat Gaztelumendi eta Julio Soto

AZKOITIA

Bertsopaper ariketa, Azkoitiako Floreaga ikastetxean:

Itziar, Azpeitia eta Azkoitiako ikasleak



Saio didaktikoa, Azkoitiako Floreaga ikastetxean:

*Itziarko taldea (Ara Laka, Amalur Ponce, Ainitze Azkarraga, Aloña Salegi, Jone Aranberri eta Jare Bengoa)

*Oier Etxeberria, Aitor Salegi

Aurkezlea: Eneritz Artetxe



Aitor Salegi eta Oier Etxeberria



Floreagako oholza bertsolariz lepo

Itziarko bertso eskolako taldearen emanaldia
Ara, Amalur, Ainitze, Aloña, Jone eta Jare

Txirritaren “Ijitoen” bertsoetan moldatutako emanaldia
Doinua: Esplikatzeroa noa kontuak

Esplikatzeroa noa kontuak
ijito jende hoiak
nola diraden gure artian
gertatu izan direnak
alperrak edo mozkorrak dira,
erdi lapurrak gehienak
okasiua ta eskandalua
faltatutzen etzaienak.

Beren asto ta zakur eta ume
hemen dabilta jai ta aste
mikeletiak inoiz aurrian
atera izandu dituzte,
berak baino lehen osteria etorri
ta persegitzen gaituzte
beste holako naziorik bat
inon danik ez det uste.

Kojitutako aberiak
nola nahi duten jokatu
hemen ostu ta aruntz eraman,
han saldu edo trukatu,
hangoak berriz honuntz ekarri
jabiak ezin topatu
kontu garbia nahi duenak ez
ijituekin tratatu.

Sasietako ohialak eta
oilo kojitzen atsuak
ta kalietan poltsak miatzen
dabilta mutil gaiztuak,
gizonak berriz mendietatik
behorrak eta astuak
gauza gozorik senti badute
azkar erantsi eskuak.

Esplikazio handi xamarrak
nagusitu dira hemen
bizimodua atera nahi ta
begira kontua zer den,
fama ederra jarri ziguten
eta iraun du ondoren
leihoak ere itxi zituzten
guk atea jo baino lehen.

Traje guztiak bertan hartuta
joan ginen zoritxarrez
poliziaren esku gogorra
ere probatua aurrez,
Euskal Herrira etorri eta
egurra halabeharrez
eurak nazio bikaina baina
besterik onartu nahi ez.

Tratante jende ugari dira
bidez bide topatuak
guk eskolarik apenas degun
nola atera kontuak,
herriko listo askok jomugan
hartu gaitu ijituak
ez gera guztiz argiak igual
baina ez gera tontuak.

Erromes gisa Europaldera
abitu ziren lehenguak
egurra eta burla izan dira
guretzako ukenduak
ez dira gutxi urte luzetan
gure bizkar mantenduak
noizbait itzuli beharko zaizkigu
aurretik guri kenduak.

Neska-mutilak tokatzen bada
berentzat elkar hartzia
zelebre diren kontuak hortan
ere badarabiltzia:
buruaz gora botako dute
hautsi dadila eltzia
zenbat puska egin hainbeste urteko
ijitoen ezkontzia.

Etxe, karrera, ola, telleri
legorrak dauden tokira
jeneralian gauetarako
erretiratutzen dira
atentzian egon izan naiz
nola dabilzan begira
ez dute onik hasarretu ta
purrukatzen ez badira.

Guk behar ditugu gure ohiturak
ta desberdinak ugari
urrutikoak gertatu izan
zaizkiola jendeari
basopiztien gisa ipintzen
arituak dira ari
erakutsiko genizkioke
ikasi nahi ditunari.

Gizarte honek markatuta ta
gutziz baztertuta gaude
beti egun txar, beti gaiztuak,
beti deabruen pare
gure legeak dira guretzat
komeni zaigu bazpare
eta earki moldatzen gera
polizi beharrik gabe.



Itziarko bertso eskolako gaztetxoak

HASERAKO AGURRAK: Aitor Salegi eta Oier Etxeberria

Aitor Salegi

Doinua: Iparragirre abila dela

Bertsopaperak hala aginduta
paperari behar eutsi
umeak prestu etorri dira
beren arkatz eta guzi
gogoia ez nun aparte
baina bien bitarte
ez dut hartu pena gutxi
neuk ere idatzi nahi nituen gaur
baina ez didate utzi (bis).

Oier Etxeberria

Doinua: Behin batean Loiolan

Bertsoak idazteko
nolako patxada
biurtu bitez letra
horiek algara
ez, azkoitiarrentzat
lekurikan bada
atsaldeon Azkoiti
eta Floreaga (bis).



Eneritz Artetxe, gaijartzailea

4 oinak emanda: Aitor Salegi eta Oier Etxeberria

Oier

Doinua: Gu gazte ginelarik

Eneritz jardun ohi da
saioa **gidatzen**
ta bertso bazkaritan
ez zaigu **salbatzen**
nahiz guztiok hain pozik
aritu **bazkaltzen**
gero Eneritz beti
ontziak **txukuntzen**.

Euskalkien artean
behar da **kotxea**
errima hoiek jartzen
Marta ze **ai zea?**
norbaitek Azkoitian
badauka **etxea**
s ta z beti
gaizki **pentsatzea**.

Aitor

Doinua: Gu gazte ginelarik

Nahiz tabladura igo
eta eman **dena**
bertso erdian gelditu
ta zelako **pena**
oholtza gainean dago
bertsolai **txarrena**
ta hortik irtengo da
gerora **onena**.

Aitonan baserrian
jartzen du **begia**
hango ardi, zaldi, behi
ta hango **txerria**
behia jesteko ere
ba omen du **aulkia**
ez zaizoue sinistu,
deus ez da **egia**.

Aitor Salegi eta Oier Etxeberria

OFIZIOA: Aitorrek, taldekide duen Oierri begira igarotzen du ia goiz osoa.

Doinua: Adiskidia Andoaindikan

©Aitor Salegi

Nere atzean jarri zera ta
zerorri begira hasi
serio zauden momentuetan
liderra zeu zera kasi
txiste batekin ta lagun denei
aldiho hainbeste grazi
iruditzen zait zuregandikan
badudala zer ikasi.

Irakasleak biderketan bat
egingo zun honezkero
lau eta bost bat egiten ditut
egunero egunero
zuri begira nago ordea
maixua atzean dago
apunteyak behintzat utz izkidazu
goxo eskatu ezkerro.

©Oier Etxeberria

Gure klasean dagoen mutil
biurriena zera zu
zu beti buelta emanda zaude
nei eginez enbarazu
utzi piskaten neri pakean
ta maixuai egin kasu
gero Mateko apunte denak
nei eskatzen dizkidazu.

Ikaste hortan z u ta ni biok
badegu nahiko bertute
nahizta eskolan ez gabiltzan fin
joan den hiru-lau urte
nere mateko apunte dena
zuri eskainiko nizuke
errekreogan zure taldean
aukeratzearen truke.

Hartuko zaitut nahiz zu hartzea den taldearentzat kalte portero gisa jarriko zaitut badet nahiko borondate nahiz eta gero ikasgai hontan aterako dedan kate ni futbolista izan behar dut ta zertarako dut Mate.

Zuk nahi zenuke Mate utzea betiko alde batera baina gu biok matematiko handiak izango gera puska hanka bat , futbolistaren karrera doa gainbera aulkia hola mugitu ezkerorori egingo zera.



Floreaga ikastetxeko aretoko publikoa, adi

PERTSONAIA EZKUTUA: Aitor asmatzen saiatu, Oierrek pista eman.

Doinua: Ikusi nuenean

Oraindik gazte al da,
lehenengo galdera:
Bai, ta oso gaztea
nere arabera

baina umea edo
helduago iada:
persona ta ezkutua,
ume bat da, hara

marrazki bizidunak
direla seguru:
marrazkiak bai baina
bizitik gutxi du

beno, katua al da
edo ume bihurri:
hori ez det Eneritzen
orri irakurri

ta ze ordu aldera
botatzen dute ba:
goizean ta oso goiz
nere arabera

ni lo egoten naiz ta
ez det asmatuko:
beno saiatzeari
behintzat ez ein uko

garai batean zeuden
maiz motor-xaguak:
hemen guztiok gara
gatzexeaguak

handik urte batzuta
Shin Chan zan etorri:
baina honek Japonen
ez dauka jatorri

gero Mauka-Mauka ere
artean egon zen:
Mauka Maukarik ez det
ikusi nik plazan

eta Coshican ere
bazegon tarteka:
honek japonesez du
kriston azterketa

orduan Shinkan ere
deskartau beharko:
bai, hori askoz ere
berriago delako

uste det atsalde dena
beharko degula:
baita umeak baietz
zuri egin burla

hemen telebistarik
ez al dadukate:
zerbait fisikoagoa
dela det nik uste

pista gehiago eman
albotik mesedez:
esangoizut pertsona
egina da egurrez

Pinotxo ez da ba izango
pentsatzen jarriota:
ta sudurluzeari
ez egin kritika.

PERTSONAIA EZKUTUA: Oier asmatzen saiatu, Aitorrek pistak eman.

Doinua: Ikusi nuenean

Ba, zer degu persona
edo marrazkia:
Bietatikan dula
to, egi guztia

baina, zuk ez didazu
esan zer den hori:
marrazki bizidunak
hartzen ditu ongi

ziur Pinotxo behintzat
ez dela izango:
arrazoia daukazu
ondo, ondo, ondo

ta, zer da euskalduna
ala japonesa:
euskalduna da eta
aitortzeko presa

joder, nik nahi nun Dragoi
Bola izatea:
barkatu baino ez da
laguntxo maitea

ETBn ba al dauka
bada marrazkirik:
haren makinat ia
ikusi ditu nik

sorgintxulo soilik da
ezautzen dedana:
iragana joateko
hartu zazu lana

iraganean geunden
denok jaio gabe:
ta orain ere asmatzen
antzerako gaude

oraindik ematen al
dute egunero:
hiruterdik aldera
goizero-goizero

goizean hiruterditan
ni lo egoten naiz:
baina leruntatetan
zu esna ere bai maiz

zeri buruzkoa zen
esazu mesedez:
hitzekin abila da
egiten det promes

Lazkaotxiki orduan
hizketan abila:
asmatu dezu eta
ez jarraitu bila.

Puntua erantzuten: Aitor Salegi eta Oier Etxeberria

Oier

Doinua: Orain hasi biau

Bertso eskolara hasi zinen egunean:

ai, zenbat buruhauste
nere garunean
han hastean egunik
eta onenean
puntu haiek daduzkat
nik oroimenean

Eta, zer da eskola edo askoz gehiago:

zerbait gahiago dala
ni seguru nago
irakasleen ondoan
hartuaz abaro
bertso eskolarekin
segi beharra dago.

Oier, zer zor diozu bertso eskolari:

txikitan nintzadenez
bertsotako nagi
gero Jokin etorri
zitzaigun kantari
eta bere esana
jarraitu dut adi.

Aitor

Doinua: Haizeak bidali du

Azkoitira askotan etortzen al zera:

hilabetan bitan
gutxigorabehera
parrandara autobuses
hamabik aldera
ta goiza argituta
bueltatu ohi gera.

Hau da Gipuzkoako herri politena:

hori azkoitiarrak
esaten duena
ez dudala sinisten
hori da problema
herri onena beti
da norberarena.

Hainbeste jende jator gaur zuri begira:

zintzo eta jatorrak
aitotzen det, tira
nahiz hauekin joan leiken
oso urrutira
lasai, denborarekin
esnatuko dira.

BUKAERAKO AGURRAK

Aitor Salegi

Doinua: Santa Barbara II

Bertso idazten zuek hain errez
ta guk oholtzan zer komeri
txiste onak nahi kantatu eta
lortu ezin, ze komedi
gaurkoz nahiko da, orain bagoaz
bai Oier ta bai Salegi
bertso eskolara astero joan
eta ondo ondo segi (bis).

Oier Etxeberria

Doinua: Behin batean Loiolan

Matematikan inork
ez atera kate
ese eta zetikan
ez nahastu bate
ez ibili ezker
bertsotik aparte
gu biok aina laister
izango zerate (bis)

3-BERTSOPAPER SARITUEN BILDUMA



SARITUEN ZERRENDA GROKORRA

LH 3. eta 4. mailak (8-9 urtekoak)		
IRABAZLEA	June Arregi Barandiaran	Elgoibar Ikastola
Aipamenak	Sofia Mendia Montero	Urretxuko Gainzuri Ikastetxea
	Arixen San Sebastian Larrañaga	Zarauzko S. Mitxelena Ikastola
	Nahia Carrillo Salegi	Elgoibar Ikastola
	Nikolas Contreras Goikoetxea	Ataungo Joxemiel Barandiaran Eskola
LH 5. eta 6. mailak (10-12 urte bitartekoak)		
IRABAZLEA	Ugaitz Usabiaga Egiguren	Asteasuko Pello Errota Ikastetxea
Aipamenak	Lantz Unanue Bidal	Azpeitiko Ikasberri Ikastola
	Asier Urkiola Urmeneta	Urretxuko Gainzuri Ikastetxea
	Iosu Mujika Dumall	Asteasuko Pello Errota Ikastetxea
	Xanet Mendizabal Barandiaran	Beasaingo Andramendi Ikastola
DBH Lehen Zikloa (12-14 urte bitartekoak)		
IRABAZLEA	Aner Euzkitze Manterola	Zarauzko Lizardi Institutua
Aipamenak	Eider Maya Sanzberro	Oiartzungo Hautzaro Ikastola
	Aloña Salegi Alkorta	Itziar/Debako Mendata Institutua
	Izar Ruiz de Austri Arexolaleiba	Arizmendi Ikastola-Gaztelupe gunea
	Olatz Zuazubiskar Iñarra	Arizmendi Ikastola-Gaztelupe gunea
DBH Bigarren Zikloa eta Batxilergoa (14-18 urte bitartekoak)		
IRABAZLEA	Beñat Mujika Izagirre	Donostiako Santo Tomas Lizeoa
Aipamenak	Naroa Agirre Arozamena	Hernani BHI
	Maddi Aiestaran Iparragirre	Beasaingo Loinazpe Institutua
	Oihana Labiano Sorazu	Ikasberri Azpeitiko Ikastola
	Lierni Rekondo Villaron	Lasarte-Usurbil Institutua
	Oihana AranaCardenal	Arizmendi Ikastola-Almen gunea

LH 3. eta 4. mailak (8-9 urtekoak)

IRABAZLEA: June Arregi Barandiaran (Elgoibar Ikastola)

GAIA: Bidegorria jarraituz herriari itzuli osoa eman diogu oinez.

Orioko balearena



Ibiltzea guk denok
gustuko dugunez,
ondo pasatuaz gain
osasuntsu denez,
batzuk bizikletan ta
beste batzuk oinez
nahigabe herriari
buelta bat eman ez.



June Arregi, irabazlea

LH 3. eta 4. mailak (8-9 urtekoak)

AIPAMENA: Sofia Mendia Montero (Urretxuko Gainzuri Ikastetxea)

GAIA: Marrazki bizidunen herria ikusi eta ezagutu dugu.

Ama begira zazu



Sei urte nituela
telebistan sartuz
Doraemon ikusi non
etxea margotuz.

Orduan etorri zen
izena galdetuz
eta nik esan nion
ibiltzeko kontuz.



LH 3. eta 4. mailak (8-9 urtekoak)

AIPAMENA: Arixen San Sebastian Larrañaga (Zarauzko S.Mitxelena Ikastola)

GAIA: Katarroa sartu da gure etxean eta ez du alde egiteko asmorik.

Ama begira zazu



Katarroa sartu da
etxeko atetik
eta antza ez dauka
joateko asmorik

Ohe barruan nago
atxis eta atxis
ez zait ezer gustatzen
ai,ama mekatxis.



LH 3. eta 4. mailak (8-9 urtekoak)

AIPAMENA: Nahia Carrillo Salegi (Elgoibar Ikastola)

GAIA: Bidegorria jarraituz, herriari itzuli osoa eman diogu oinez.

Maritxu nora zoaz



Oraintxe hasi gara
denok buruz buru
ibiltzen tipi-tapa
guk lortuko dugu
herriari itzulia
emango diogu
bukaerara heltzea
baitugu helburu.



LH 3. eta 4. mailak (8-9 urtekoak)

AIPAMENA: Nikolas Contreras Goikoetxea (Ataungo Joxemiel Barandiaran eskola)

GAIA: Bidegorria jarraituz, herriari itzuli osoa eman diogu oinez.

Pello Joxepe



Amak esan dit paseatzeko,
hori ez da nire giro
asko nekatu ohi naiz eta
joan behar dut astiro
etxera azkar ailegatzeko
behar dut Putterri igo
bidegorritik paseatzera
ez nihoa ni berriro.



Txikien mailako saridunak, Ane Labaka sari-emailearekin



Elgoibar Ikastolan, bertsopaperak idazten

LH 5. eta 6. mailak (10-12 urte bitartekoak)

IRABAZLEA: Ugaitz Usabiaga Egiguren (Asteasuko Pello Errota Ikastetxea)

GAIA: Animalien munduan murgilduz, (animalia hauxe) izan nahiko nuke.

Haizeak bidali du



Ni izango nintzake
txerrama galanta
batetik baina eta
bestetik patata
aurrena ondo jan ta
gero egin kaka
bizitzarik onena
berarena da ta.

Ni txerriak bezela
laurehun kilo edo
putzutan plisti plasta
lokatzetan bero
ta abendura potolo
iritsi ezkerro
Donostin hilko naute
parranda ta gero.



Ugaitz Usabiaga irabazlea, kantuan

LH 5. eta 6. mailak (10-12 urte bitartekoak)

AIPAMENA: Lantz Unanue Bidal (Azpeitiko Ikasberri Ikastola)

GAIA: Nire inguruaren adiskide izaten saiatzen naiz

Mendian gora haritza



Daukat maitasun beharra ez da batere earra ezin ikusi aurpegi hontan inoiz irribarra zauriz zauri, marraz marra hau da bizitza kaxkarra familiagatik emango det nik daukadan indarra.	Ta uste dute naizela nahiz ta ez izan ergela bakar-bakarrik egoten naiz ni gaixo bat bezela beti gainean itzela ezin dut segi horrela neri egiten didaten hoiek proba dezatela.
--	--

LH 5. eta 6. mailak (10-12 urte bitartekoak)

AIPAMENA: Asier Urkiola Urmeneta (Urretxuko Gainzuri Ikastetxea)

GAIA: Aurtengo neguan elur gosez nabil.

Hiru aste badira



Udazkena bukatutakoan
banuen kriston beldurra
elurra egingo zulakoan
babestu nuen txakurra
negua aurten iritsi zaigu
baina benetan maltzurra
nahiz eta telebistan jarrita
ez du egiten elurra.

Elurra egiteko behar du
hotz asko eta gogua
alde onari begiratuta
ez dut piztu beharko sua
Olentzerok manga motz motzetan
ekarri digu zakua
iritsi baino askoz lehenago
bukatu zaigu negua.



LH 5 eta 6 mailatako aipamen berezidunak

LH 5. eta 6. mailak (10-12 urte bitartekoak)

AIPAMENA: Josu Mujika Dumall (Asteasuko Pello Errota Ikastetxea)

GAIA: Animalien mundura murgilduz (hauxe) aukeratuko nuke.

Haizeak bidali du



Nik hasi nahiko nuke tximua izaten eguna pasatzeko platanoa jaten zuhaitzez zuhaitz nabil saltoak ematen baina ea ez naizen lurrera joaten.	Nik ditut tximinoen hamaika bertute zenbat salto arbolaz aldatzean truke ta oihanean bista ederrak dituzte horregatik tximua izan nahiko nuke.
--	---



LH 5. eta 6. mailak (10-12 urte bitartekoak)

AIPAMENA: Xanet Mendizabal Barandiaran (Beasaingo Andramendi Ikastola)

GAIA: Eskolara joateko aukerarik ez duten neska-mutiletaz gogoratu naiz

Zer da gaur Donostian



<p>Ikastolan ein degu gai interesgarri Afrikako lekuan behar nuke jarri han jende asko dago gosez ta egarri eskola gabe ere jende asko larri denok behar genuke laguntza ezarri (bis).</p>	<p>Haruntz iritsitakon ikusi nuena ordun konturau nintzen pobrezia dena Afrikan bizitzeko daukate kemena konparako bagenu Europan garena infernua litzake bizitzen dutena (bis).</p>
--	--



DBH Lehen Zikloa (12-14 urte bitartekoak)


IRABAZLEA: Aner Euzkitze Manterola (Zarauzko Lizardi Institutua)

GAIA: Aspertzeko betarik gabe bizi naiz, baina pozik nabil.

Itsaso hori dago zatarra



<p>Bertsolaritzan milaka froga, dena umore zein metafora, noizbait bide bat okerra bada har daiteke ziboga (bis) Gasteiza, ta Durangora Angeluraino gerora, nahi ta ezina izango da... nahiz ta batzutan desorekatu ta ezinak egin gora, egiten dena gustatzen bada beti egiten da gustora (bis)</p>	<p>Dena edertasun ta aurrerapen, beste aro bat hasten da aurten, lanbide honek nola euskara osorik alda dezakeen (bis) sarri zaila du ematen munduari erasaten, baina horrelako baten, konturatu naiz badaukadala behar adina ekarpen... nirea soilik egin behar dut besteek goza dezaten (bis).</p>
--	--



Aner Euzkitze. irabazlea

DBH Lehen Zikloa (12-14 urte bitartekoak)

AIPAMENA: Eider Maya Sanzberro (Oiartzungo Haurtzaro Ikastola)

GAIA: Aspertzen naizenean, badakit zer egin bizirik sentitzeko.

Minberatu zaizkigu



Neri ez zait gustatzen batere aspertzea oraindik gutxiago ballet dantzatzea soluzio onena txantxak egitea dibertitzen nauena: adarra jotzea.	Triste nagoenean da mundua hotza irrifarra da beti botika aproposa nik farra egitean pizten zait bihotza umoreak sortzen dit niri bizipoza.
---	--

DBH Lehen Zikloa (12-14 urte bitartekoak)

AIPAMENA: Aloña Salegi Alkorta (Itziar/Debako Mendata Institutua)

GAIA: Ez dut gogoko lagunekin haserretzea.

Habanera



Batera egon ondoren hau guztia gertatzeak pena ematen dit neri egoera azaltzeak gure inguruko denak guzti honek harritzeak ez ote dute balio pasa ditugun urteak laguntasun politetik amorrua agertzeak jadanik ez du balio ezer ere konpontzeak burura ekarri baitit piskatxo bat pentsatzeak zertarako balio du zurekin haserretzeak?	Oraindik ezin sinetsi hori pasatu zaigunik ez dut uste nik barkatu esan behar dizudanik begiak malkoz beteta jarriak zaikzit jadanik nahiz ez didazun eskatu oraindikan barkamenik lasai egon ez daukazu ezer eskatu beharrik ez dut nahi nire bizitzan inorekin hasarrerik izan gaitezen lagunak jada proposatu nahirik barkatu lagun maitea berdin esan nahi dizut nik.
--	--

DBH Lehen Zikloa (12-14 urte bitartekoak)

AIPAMENA: Izar Ruiz de Austri Arexolaleiba (Arizmendi Ikastola / Gaztelupe Gunea)

GAIA: Lotsagorritzen naizenean, hitzik gabe gelditzen naiz.

Gogoan daukat ez du aspaldi



Gorrito edo maite zaitudan orekaren bila, dudan bihotza uzkurto egiten zait maiz negar egiteko mugan egun osoa pasa dezaket bihotz ta burua zugan zure irainak, hitz itsusiak utzi nahi ditut ahazturan zenbat esan nahi nizkizun eta zenbat isildu ditudan. (bis)	Gure arteko harreman hori lotu zen konfiantzara nire akatsak ta hutsuneak denak ateraz plazara konponbide zen nire masailen gorria eta dardara amorru gorriz erantzungo dut hurrengo aizkorakada mingarriago izaten baita bizkarretik sartzen bada. (bis)
---	--

DBH Lehen Zikloa (12-14 urte bitartekoak)

AIPAMENA: Olatz Zuazubiskar Iñarra (Arizmendi Ikastola / Gaztelupe Gunea)

GAIA: Lotsagorritzen naizenean, hitzik gabe gelditzen naiz.

Gogoan daukat, ez du aspaldi



Aulkira igo eta indartsu mugitu dut lehen gerria garraxi eginez adierazi dut barreneko aldarria sudur gorria jarri ostean galdu ote dut neurria ingurukoei sumatu diet nik sortutako irria propio daukat lotsaraztean dudan kolore gorria (bis).	Masaila gorri jartzen zait eta lotsari eutsi ezinik ingurukoak ikusten ditut deabru forman eginik lotsa hitza zela, sinetsi nuen niri Pirritxek esanik nahiz ta aurpegia, gorritze hori izan dudan betidanik beranduegi konturatu naiz berandu dela jadanik (bis).
---	---



Aner Euzkitze eta aipamen berezia jasotako lehiakide batzuk, Oihana Iguaran sari-emailearekin batera

DBH Bigarren Zikloa eta Batxilergoa (14-18 urte bitartekoak)

IRABAZLEA: Beñat Mujika Izagirre (Donostiako Santo Tomas Lizeoa)

GAIA: Nire buruaren mugak/lehentasunak ezagutu nahi ditut

Munduko ilunabarra



<p>“Asko ikasi ezazu, jada handia zara zu ikasketetan jo ta su, eta bizitzan igualtsu” ahots ugari, lagundu nahian, niretzako enbarazu, jada ez dakit zer diren hoiek aholku edo mehatsu. Nire bidea egin nahi nuke burujabe, pausuz-pausu, nire iparra seinalatu eta hari soilik egin kasu baina zaila da iparrorratzik eskutan ez badaukazu (bis).</p>	<p>Jada otsailean barrena, intzirika dut barrena karrerarekin problema nabaria daukatena. Orain artean besteek zioten egin behar nukeena baina nik dena baztertu eta bota dut oihu ozena ikusketetan gerta dadila gertatu behar duena lehentasunik ez dut oraindik oso gauza nabarmena baina bizitzaz ikasi nahia ez ote da ba lehena?(bis).</p>
--	--

Zalantzarikan ezin ken
nerbioak irakiten
etorkizuna iruditzen
zaila omen da nonbaiten
haurra nintzela helduek oso
zoriontsu ziruditen
baina zer ikasketa hautatu
oso zaila da jakiten
etorkizunik ez daukatargi,
buruari eragiten
nahiz zer ikasi eta zer izan
oraindikan ez dakiten
denborarekin ikasiko dut
nire bidea egiten (bis).



Beñat Mujika kantuan, gainerako saridunekin batera (Oihana, Naroa,
Lierni, Maddi eta Oihana)

DBH Bigarren Zikloa eta Batxilergoa (14-18 urte bitartekoak)

AIPAMENA: Naroa Agirre Arozamena (Hernani BHI)

GAIA: Ausarta izan nahi dut, bere arrisku guztiekin

ETA-ren su-etenetik



Edozer gauza deitzen dit a(ha)ztuaz nire izena “egin nik esandakoa” izango da bere lema eta aurre egin gabe zintzo egiten dut dena baian haserretzen da ta hori da nire azkena kalean erakusten du bere alde goxoena nik gorrotoa diot ta gurasoek miresmena kalean beti da uso etxean otsoa dena (bis).	Aurpegi zurbila daukat ta begirada apala edonora noanean hor dago bere itzala dena nik garbitu behar sukaldea eta sala bere hitzek mintzen naute ta zauria da zabala zerbait egin behar nuke segiatuan, berehala baina nola adierazi sentitzen naizela hala? ubeldu hauen gainetik barneko mina dudala (bis).
---	--

Ubelduak nonahi ditut
morea, beltza, horia
kolpe eta mehatxuak
eguneroko ogia
erasoengandik ilun
ikusi nire zoria
egia kontatuko dut
urruntzeko hilobia
ta berak ni erailtzea
delako nire fobia
arrisku denen gainetiok
azaleratu egia
behin behintzat izan nahi nuke
aske dagoen txoria (bis).

DBH Bigarren Zikloa eta Batxilergoa (14-18 urte bitartekoak)

AIPAMENA: Maddi Aiestaran Iparragirre (Beasaingo Loinazpe Institutua)

GAIA: Gure inguruari/gizarteari, zer eman/eskaini diozaiokegu gazteok?

Mutil koxkor bat itsu aurreko



Makinita bat eskuartean uneoro itsatsia maiz errietan gure aitona halaxe zaigu hasia kostata baina aldatuko dut bere buru nahasia zerbaitengatik naizelako behin bere besotan hazia gazteok ere badugulako eurei zer irakatsia (bis).	Aldatu zaigu mila inguru aldatu mila ohitura aldatu zaigu teknologia, aldatu zaigu kultura, zerbait hobetu beharko dugu lehen oker zegoen hura sarritan hartzen diodalako mundu beltz baten itxura, eta borobil bilakatzeko gure ordua heldu da (bis).
--	---

Berdintasuna astiro baina
helduko da berehala
malko bakoitza izan dadila
irrifar baten azala,
pausorik pausu ahalegin honek
fruiturik eman dezala,
inoiz norbaitek sumatu dezan
gaurko gazteon itzala
nahaste denak askatu asmoz
aitonarena bezala (bis).

DBH Bigarren Zikloa eta Batxilergoa (14-18 urte bitartekoak)

AIPAMENA: Oihana Labiano Sorazu (Ikasberri Azpeitiko Ikastola)

GAIA: Nire buruaren lehentasunak / mugak ezagutu nahi ditut

Lurraren pean sar nindaiteke



<p>Jaio orduko nik hartzen nuen goxo amaren bularra hark erakutsi zidan egiten berdin barre nahiz negarra, hark erakutsi zidan babesten nire lagunen bizkarra ta egunero sentitzen dut nik lagun guztien beharra baian, ni neu naiz ezgutzen ez dudan pertsona bakarra (bis).</p>	<p>Nahiz eta jakin gauza denetan ez naizela hain trebea lagun, guraso zein irakasle nigan badute fedea nola badudan lagunetzako beti laztan bat gordea helburu bat dut ta neuretzako izango da askoz hobea beste guztiak zaintzearekin bat zain dezadan nirea (bis).</p>
<p>Nahiz eta gutxi axola duen zer daramadan jantzia nahiz eta nire puntu fuertea ez dudan elegantzia ta txikitatik gorrotatzen dut lagunen konpetentzia nortasunaren erakuslea nola den diferentzia nire itxurari emango diot behar besteko garrantzia (bis).</p>	

DBH Bigarren Zikloa eta Batxilergoa (14-18 urte bitartekoak)

AIPAMENA: Lierni Rekondo Villaron (Lasarte-Usurbil Institutua)

GAIA: Nire buruaren mugak/lehentasunak ezagutu nahi ditut

Bizkorra ez naiz baina badaukat



Zenbait bizipen harresituta dauzkagu norbere ziegan tarteka preso hobebharrez eta tarteka aukeran, baina askatu behar direnez nrberak nahi duen eran errimen askatasun haizea sartu nahi dute niregan ta sentitzen naiz primeran askotan preso hartzen gaituzte inporta gabe zer zeran eta hegoak moztu ezkeron bertsoz egiten dut hegan (bis).	Bertso kontutan trebea zera soberan duzu kemena berez hori da kanpotik denek ilusioz diotena eskolarteko txapelketa bat bilakatu zait problema gozamen izan behar lukeena da lotzen nauen kondena izango zara onena besteek oso argi daukate benetan ni neu naizena baian ez dakit eman ahal dudan benetan espero dena (bis).
---	---

Eguna heltzen doan heinean
nirekiko zenbat duda
ezin dut jasan besteen pare
izatearen ardura
gogoan daukat mikrofonoan
isiltzen zen neska hura
baina isiltasuna hautsiaz
atera nahi dut mundura
fikziozko baita muga
gaurko honetan irabazi dut
lotsaren kontrako duda
jadanik beldurrik ez dut eta
has dadila abentura (bis).

DBH Bigarren Zikloa eta Batxilergoa (14-18 urte bitartekoak)

AIPAMENA: Oihana Arana Cardenal (Arizmendi Ikastola / Almen Gunea)


GAIA: Gazteon ezaugarri nagusiak, umorea eta baikortasuna dira.

ETA-ren su etenetik



<p>Bizitza ez dela erraza hasten gara konturatzen aldatu ezin den hori hasi ezkerro aldatzen zuloak dauzkan guztia ez da posible osatzen loti ederrak sekula ez direlako esnatzen. Gazteok helduagoen begitan hasita sartzen garden ikusten gaituzte baikor, umore almazen hori ikusten badute ez dakite begiratzen (bis).</p>	<p>Kristalezko mundu baten bizi garenez oinutsik ezin dugunez arnastu behin garbitutako hautsik, eraiki nahi gaituztenez buru ta ideiaz biluzik inork ez dauka bizitzan aurrera egiteko funtsik. Halare, “baikorrek dira” diote hainbat nagusik negarrez baino barrezka hobe gabiltzanez kasik ez zaigu ezer geratzen barre egitea baizik (bis).</p>
--	--

Aterkipean atertu
ohi zaigunez eurijsa
bi aldiz jaiotzen denez
sugandillaren isatsa,
garbitzeko baino hegan
egiteko den erratza
eta arma gogorrena
izan daitekeen arkatza
kontu serio bat ere
izan daiteke jolasa.
Umorea sor dezagun
norberak norbere kasa
zoriontsu izatea
ez baita beti erraza (bis).



oinak buruan

Eskolartekoa